

Indusiko "San Fransisku" ermitatik (1) zubia gurutuzatu eta zuzen Dima-Otxandio errepidera aterako gara. errepidearen beste aldean dagoen baserriaren ezkerrealdetik sortzen den aldaita hartuko dugularik. Hartu dugun aldaita honetatik jaitasi, Urriretka gurutuzatu eta aurrera eta gorantz ekingo diogu. Ordu erdi igaro da eta goikogana-ko (2) puntu honetan gaudu: eskuinera Urrikoatxarako bidea, Guk Urrikoatxatik datorren bidea edo ekarri dugun pistatik ezkerretara egingo dugu aurrera. Pistari jarraituz hurrengo bidegurutzea Basoandin daukagu, eskuinetik bai Aterri zein Lupetza eta Itzunara zuzentzen diren aldaitak ditugularik. Guk ekarritako norabidean aurrera egingez Elorribe (ezkerrealdetik bideondoan aurkituko dugun pagaditxo) eta aurretxoago Pagoandi, hurrengo pagadia. Berehala San Blas Urriko ermita jada ordu bat eskasixo abiapuntutik.



"San Fransisku Olabariko" basiliza.

San Blasetik (3) irten eta berehala, 30 m. eskuinerantz, Zeanurira jaisten den pista. Guk pista hori alborna utzita aurrera egingo dugu. Metro batzuk aurrerago, ezkerretara. Elgabidera jaisten den beste basapista bat; guk geure pistari ekingo diogu Gurutzegana, ezkerrealdian daukagun tonorra, alboan utziz. Zelaiunea pasatu ondoren pistak une batean egiten duen beheerantzko gunea Gaukortako aldatza deritzona dugu; tonorra Gaukorta. Metro batzuk aurrerago ezker aldean larreak dituela egiten du aurrera pistak. Larre hauen hasieran hari multzo bat ikusiko dugun inguruan: Eguzkin. Alpatu hariak labe baten arrastoak eta justu aurrez aurre eta pistaren eskum aldean pagoen ondoan Eguzkingo etxearen hormak sasi artean. Aurrera egingez Makazti behokoa eta goikoa. Bi etheen erdian dagoen bidegurutzean ezkerretara Dima-Otxandio errepidea eta eskuinerantz Zeanurira. Makazti goikoitik aurrera egingez eskuinera ateratzen den pista Axilar eta Altzusta aldera zuzentzen dena. Guk zuzen eta gorantzko norabideari jarraituko diogu goiko ganean Olsotropetta, ezkerretara ateratzen den pista inguruan. Aldapa amatzerakoan Panabarko landea eta jarraituz alerzeetan sartzen garelarik ezker aldeko tonorra Parabar (edo Pagonabar). Pistari jarraituz, beti pista nagusi honetatik egingo dugu aurrera. Zepalekueta, ezkerrealdian aurkituko dugun hurrengo tonorra. Hurrengo bidegurutzean ezkerretara ateratzen den pistatik egin behar dugu aurrera, eskuinera hartuz Kas-tilloko puntara. Bidegurutze honetatik jarraituz Harizuri, bidean harritzko malak eta aurrerago, azken maldak igaro ondoren beste bidegurutze bat, Pagobakar. Hemen eskuinera hartuz Altunerako bidea, baina guk ezkerretik ekingo diogu. Arrase Beñitari bere olerki-

gintzarako gaia eman zion Altunago landara heldu arte, eta hemen, Zumeltza-Barazar harritzko pistara aterako garelarik. Bidegurutze (4) honetan, ezkerretara, beheerantz egingo dugu. Pista honetatik jarraituz zazpi bat minututan, Muntixagana azpian Muntixakorta ardi txabola ezkerrealdian. Aurrera egingez Zumeltzara, Dima-Otxandio errepidera aterako gara, ganaduari paso oztopatzeko parria igaro ondoren. Justu-justu errepidearen bestealdean, beste parria bat pasatuz, ateratzen den pista hartu behar dugu.



Zamakola

Zumeltza (5), jada bi ordu joan dira Indusin irten gareneik, eta hartu dugun pistari ekingo diogu alboetakoak bazterrean utziz. Hogei minututan pistatik zuzen eta aurrera egingez Atkaolan izango gara. Hemen ere zuzen egingo aurrera, ezker zein eskuinetik ateratzen diren pistak albo batera utziz. Atkaola igaro eta lasterrera eskuin aldean Estropozletako gana. Guk geure pistari jarraituz eta Txupitelarra Txiki-ko magaletik igaroz Ilurrietz (6) jo arte zuzen ekingo diogu bideari alboetan sortzen diren beste aldaiei kasurik egin gabe. Zumeltzako zelaitik ordu batean sartu gara Ilurrietz. Puntu honetan Urkiolako Parkeko zenbait norabide ikusteko aukera izango duzu. Guk Saibera (20) eta Txupitelarrera zuzentzen direnak alboan utziz aurrera egingo dugu Eskuarako norabidean. Behin norabide hau hartuta Usururantz zuzenduko gara alboetako pistei kassorki egin gabe. 20 minututan Landarleta, Magaltzeia eta Erekaigorriko kortabasa igaro ondoren Usurrun (ardi txabola) aurkituko gara. Puntu honetan ezkerretara, to-karantz, Usurruoste; guk zuzen egingo dugu. Pistan beheerantzko lehen metroak igaro ondoren Dragaletu eta kanala pasatu ondoren aurkituko dugun zelaitxoa Bistepago. Ondoren Oladu, bi baseri.

Berrogei minutu Ilurrietzetik Oladuraino (7) maldan behera. Oladun goitik behera ekarri dugun norabide berberetan pista jarraituz, berehala Oladupe, errekatxarkoa igarotzen den gunea, ondoren, lasterrera Sikortako zelaiunea. Bost minutu ura Matxikortako zelaita eta harritzko zubie eta segidan Urzabaleta. Urzabaletko baserria igaro eta berehala eskuinera sortzen den pista hartu behar dugu. Pista honi jarraituko diogu: Kortabarria, Goñola, Eroitzahar, Zentrala, Landaxueia, Zamakola eta Indusi, gure gaurko abiapuntua. Guztira 5 bat ordu eta 19 km. gutxi bat gora behera.

